

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

# Iñaki Goirizelaiaren Errektoretzaren balantzea

Agintaldiak  
2009/2012 eta 2013/2016

## **AURKIBIDEA**

1. Sarrera
2. Egituraketa
  - 2.1. Ikastegien berrantolaketa
  - 2.2. Campusak garatzeko plana
3. Pertsonalaren kudeaketa
4. Ikasleak
  - 4.1. Irakats eskaintza
  - 4.2. Eredu pedagogikoa
  - 4.3. Ikasleen enplegarritasuna
  - 4.4. ehualumni
5. Ikerketa
6. Euskara
7. Nazioartekotzea
  - 7.1. Eleaniztasuna
  - 7.2. Nazioarteko rankinetan agerpena
  - 7.3. Euskampus
  - 7.4. Euroeskualdeko campusa
8. Gizarte erantzukizuna
9. Finantziazioa
10. Azken hausnarketa

## 1.- SARRERA

Txosten honek helburu du Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) errektore arduraren azken zortzi urteetan (2009-2016) egindako lanaren berri ematea eta etorkizuneko hausnarketa labur bat egitea.

Agintaldi bi hauetan egindakoaren laburpena jasotzen da, hau da, emandako urratsak eta lorpen nagusiak, ikuspegi kritiko batetik egin ere. Euskal Herriko Unibertsitatea Euskal Autonomi Erkidegoko (EAE) unibertsitate publiko bakarra den heinean, uste dugu ezinbestekoa dela egindako lanaren berri ematea.

Lehenengo agintaldiaren (2009-2012) erronka nagusia eta premiazkoena izan zen UPV/EHUko irakats eskaintza Europako Unibertsitate Eremura (EUE) egokitzea. Hala ere, horrek ez zuen galarazi beste alorretan urrats sendoak ematea eta ekimen garrantzitsuak garatzea. Horrela, ikerketa jardueraren azterketa sakona egin eta beharrezko neurriak hartu ostean, emaitza esanguratsuak lortu ziren: UPV/EHUko ikerketa taldeen kontsolidazioa; 2012. urtean Euskampus proiektuak Nazioarteko Bikaintasun Campusa agiria eskuratzea eta urte berean UPV/EHU Shangaiko rankingean sartzea. Era berean, Campusen zaharberritze lanak burutu ziren, bai eta UPV/EHUren Estatutu berriak onartu ere. Agintaldiaren amaieran, Eusko Jaurlaritzak 2011-2014 Unibertsitate Plana onartu zuen, gure ustez plan ona zena, baina, zoritxarrez, krisialdiak ez zuen aukerarik eman plana behar bezala garatzeko.

Bigarren agintaldia (2013-2016), ostera, krisialdi ekonomikoak baldintzatu du erabat. Arlo guztietan murrizketak izan ziren, gehienak Espainiako Gobernuak hala erabakita. Ingurumaria horretan, pertsonalaren kudeaketa zailtasunez betea egon da eta karrera akademikoa garatzea ia ezinezkoa izan da. Krisialdiak erabat baldintzatuta, Eusko Jaurlaritzak 2015-2018 Unibertsitate Plana onartu zuen. Ondorioz, UPV/EHUren etorkizuna sendotzeko finantziazio berezirik eskatzen ez zuten proiektuak garatzea izan da lehentasuna. Ildo horretan, bi izan dira proiektu estrategikoenak: ikastegien berrantolaketa eta, Bordeleko Unibertsitatearekin batera, Euroeskualdeko Campusa eratzea. Era berean, beste neurri garrantzitsu batzuk ere hartu dira: besteak beste, irakats eskaintza hobetzea; gradu berriak ezartzea; Graduondoko Plan Estrategikoa garatzea; UPV/EHUK gizartean duen presentzia areagotzea eta iritzi sortzaile legez duen papera aintzat hartzea.

Edonola ere, zortzi urte hauetan, UPV/EHUK pausu garrantzitsuak eman ditu gizon eta emakumeen arteko berdintasuna, kooperazioa, jasangarritasuna eta inklusioa bezalako balioak hedatzen, komunitate unibertsitarioan euskararen erabilera sustatzen edota ikasleen praktiken eskaintza areagotzen.

## 2.- EGITURAKETA

### 2.1- IKASTEGIEN BERRANTOLAKETA

Euskal Herriko Unibertsitatea hiru campusetan dago banatua (Arabakoa, Bizkaikoa eta Gipuzkoakoa) eta, orotara, 20 ikastegiz osatua. Ildo horretan, nabarmentzekoa da UPV/EHUk, azken urteetan, burutu duen proiektu garrantzitsuenetako bat ikastegien berrantolaketa izan dela. Bi urte luzeko hausnarketa eta eztabaida parte-hartzailearen ostean, 2015-2016 ikasturtean UPV/EHUko ikastegien berrantolaketa gauzatu zen; 32 ikastegitik 20ra igaroz.

Hona ikastegien berrantolaketaren helburua:

- Masa kritikoa handitu, ikastegien lehiakortasuna eta ikusgarritasuna hobetzeko, tokiko mailan nola nazioartekoan, ezagutza arlo guztietan.
- Graduoko tituluen eskaintzak graduondokoarekin duen erlazioa hobetu, bereziki ildo profesionalak dituzten masterrekin.
- Masa kritiko ikertzaileak gabeko ikastegietatik datozen irakasleak ikerketa-jardueran sar daitezzen erraztu.
- Baliabideak partekatu, materialak nola giza arlokoak, haien kudeaketan eragingarritasuna hobetuz, baita eraginkortasuna ere erronka estrategiko berriei ekiten lagunduko duten helburuen lorpenean.
- Sailen antolakuntza erraztu, sail batzuk banatuta dauden ikastegien kopurua gutxituz.
- Ikastegien kanpoko proiektzioa hobetu, baita kokatuta dauden inguruneko inplikazioa eta eragina ere, gure unibertsitatearekin lidergoa Euskal Herrian indartzen laguntzeko.
- Jarduera akademikoa hobetu politika egoki bat sustatuz.
- Arku Atlantikoko unibertsitateekin eta ehun sozio-ekonomikoarekin loturak bultzatu.
- Gobernantza-eredu berri baterantz egin, irakasle hobeak kontratatzeko eta ikasleentzat erakargarriak izateko helburuarekin.

Ziur gaude bizitza akademikoaren arlo guztietan, hala nola, irakaskuntza-ikasketa prozesuan, ikerketan zein transferentzian, antolaketa berri horren emaitzak ikusiko direla.

## UPV/EHUko ikastegiaren zerrenda

- Arkitektura Goi Eskola Teknikoa
- Arte Ederren Fakultatea
- Bilboko Ingeniaritza Eskola
- Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola
- Ekonomia eta Enpresa Fakultatea
- Farmazia Fakultatea
- Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskola
- Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola
- Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea
- Hezkuntza eta Kirol Fakultatea
- Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
- Informatika Fakultatea
- Kimika Zientzien Fakultatea
- Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea
- Letren Fakultatea
- Master eta Doktorego Eskola
- Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea
- Psikologia Fakultatea
- Zientzia eta Teknologia Fakultatea
- Zuzenbide Fakultatea

### 2.2- CAMPUSAK GARATZEKO PLANA

Azpiegitura egokiak ezinbestekoak dira UPV/EHUko ikastegi guztietan bizitza akademikoa behar bezala garatzeko. Horregatik ekin genion lehenengo agintaldiaren hasieratik Campusak Garatzeko Planari.

2005. urtean, UPV/EHUK unibertsitate garapenerako erreferentziarako eredu bat definitu zuen. Bertan, hiru campusetako azpiegitura guztien hobekuntza eta eguneratzea jasotzen ziren, baita beharrezkoak ziren azpiegituren eraikuntza nola aurrera eraman ere. Ildo horretan, hiru campusetarako eredu bat zehaztu zen eta honako baldintza hauek jaso ziren:

- ✓ Gradu eta graduondoko ikasketetarako azpiegitura zehatzak
- ✓ Ikerketa eta Garapenerako azpiegitura zehatzak
- ✓ Unibertsitate zerbitzuak
- ✓ Kirol instalazioak
- ✓ Unibertsitate komunitateko kideentzako zerbitzuak
- ✓ Irisgarritasuna

Bizkaiko Campusa zen inbertsio handiena behar zuena, batez ere Leioa-Erandio gunea. Lan eskerga egin zen eta egun unibertsitate campus sendoa dugu gune honetan: eraikin gehienak zaharberitu; UPV/EHUko Zientzia Parkea sortu; irakaskuntzarako eta ikerketarako azpiegitura berriak eraiki, eta unibertsitarioentzako gune bihurtu dugu. Polo teknologikoa ere sortu dugu San Mames gunean, bertan ingeniarietza eskola ezberdinak Bilboko Ingeniarietza Eskolan batuz.

Arabako Campusak behar zituen ikerketarako azpiegitura berriak jarri ditugu abian; giza eta gizarte zientzien eta biozientzien eta bizi kalitatearen arloetako zentro bana. Azpiegitura hauei esker erantzun egokia eman zaie campusak zituen beharrei.

Helburu bera betetzeko asmoz, Gipuzkoako Campusean ere eraikinak zaharberitu eta berriak eraiki ditugu. Hauen artean, nabarmentzekoa da campusaren bihotza bihurtu den Carlos Santamaria liburutegia, hirian bertan erreferentzia bihurtu dena. Bertan, giza eta gizarte zientzien arloko ikerketa talde eta institutu batzuek ere badute egoitza.

Ildo horretan, Bizkaia Aretoa ere aipagarria da. Bilbon kokatuta, euskal gizartea eta unibertsitatea lotzen dituen paraninfo aparta. Bertan, urtero, mota desberdinetako ia 500 ekitaldi antolatzen dira, gehienak akademia eta kultura zientifikoarekin lotutakoak.

UPV/EHUko hiru campusetan inbertsiorik egin gabe urte asko igaro eta gero, 254M€ inbertitu dira eraikinak zaharberitzen eta azpiegitura berriak eraikitzen: Arabako Campusean 27M€, Bizkaikoan 185M€ eta Gipuzkoakoan 42M€. Diru kantitate horretan ez da jasotzen Bizkaia Aretoaren kostua, BBK erakunde finantzieroa ordaindu baitzuen, ezta UPV/EHUren Zientzia Parkearen egoitzarena ere, azken hori Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkeak finantzatua.

Baina, den-dena ez da positiboa izan. Bizkaian ez da San Mameseko polo teknologikoa erabat garatu, ezta Medikuntza eta Erizaintza Fakultate berria eraikitzea lortu ere. Fakultate berria ezinbestekoa da Euskal Autonomi Erkidegoan osasun arloan ditugun premiei modu egokian erantzuteko: besteak beste, osasun sareak beharrezkoak dituen profesionalak trebatzeta, elebitan formatu. Gaur egun, UPV/EHU, medikuntza arloko 280 profesional hezten ditugu eta erizaintzan beste horrenbeste: guztira 560. Medikuntza graduko ikasleen egresatuen %99k eta Erizaintza graduko %74k Osakidetzan egiten dute lan.

### 3.- PERTSONALAREN KUDEAKETA

Azpiegitura garrantzitsuak badira ere, gakoak pertsonak dira. Gaur egun 5.503 irakasle-ikertzailek eta administrazio eta zerbitzuetan 1.898 profesionalak dihardute lanean UPV/EHUn.

Duela zortzi urte helburu batzuk finkatu ziren eta, horien artean, honako hauek dira aipagarrienak: administrazio eta zerbitzuetako 400 langile gehiago, batez ere irakaskuntzarako eta ikerketarako teknikariak; lan eskaintza publikoa; Fisioterapia gradua abiarazteko irakasleen lanpostuak sortzea; 70 ikerlari postuak sortzea, eta Irakasleen Plan Gidaria oinarri, karrera akademikoa sustatzea.

Bi agintaldi hauetan zehar administrazio eta zerbitzuko langileen alorrean 228 plaza sortu dira Lanpostuen Zerrendan eta beste 100 kontratu. Irakasle-ikertzaileei dagokienez, Fisioterapiako gradua eskaintzeko beharrezkoak izan diren lanpostuak sortu dira baita, ikerlari doktoreen 19 eta irakasle laguntzaileen 24 lanpostu.

Bestalde lan eskaintza publikoak onartu dira bai irakasleen alorrean bai eta, lehen aldiz, Administrazio eta Zerbitzuetako Langile laboralen alorrean ere. Eskaintza guztiak erreposizio tasa kontuan izanik egin dira.

Xede hauek guztiak betetzea ez da posible izan. Izan ere, kontratu programen bidez, kontratazio batzuk egin badira ere, oraindik ezin izan dira behar bezala sortu lanpostuen zerrendan, bi arrazoi nagusiren ondorioz: legez plantillak ezin izan direlako handitu eta erreposizio tasak izan duen eraginagatik. Horretaz gain, estrukturalak diren lanpostuak oraindik kontratu programen bidez ordaintzen jarraitzen dugu. Irakasle-ikertzaileen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen plantillaren kudeaketari dagokienez, azken urte hauek penagarriak eta benetan konplexuak izan dira.

Testuinguru honetan, gure langileei egokitasunez erantzun nahi izan diegu. Askotan ez da posible izan, kanpo eragileen erabakiek gure jarduna erabat baldintzatu dutelako. Murrizketa horiek, sarri, motibazio falta ekarri dute. Etorkizunean gure langileen motibazioa suspertu nahi badugu, murrizketen bide honi amaiera eman behar diogu lehenbailehen.

Azken urteetan, gure helburu nagusia lanpostuak ez galtzea izan da. Xede hori oinarri izanik eta arduratsu jokatu, urtero aurrekontuak landu eta onartu ditugu. Krisi garai gogor honetan, helburu hori lortu izanaz harro gaude.

#### 4.- IKASLEAK

Irakasle-ikertzaileak, administrazio eta zerbitzuetako langileak eta azpiegiturak denak dira beharrezkoak gure ikasleei kalitatezko irakats eskaintza emateko. Ildo horretan, aipatzekoa da UPV/EHUko ikasle kopurua bere horretan mantendu dela azken urteetan, 45.000 inguruan.

Gizarteari eta bereziki, gure ikasle izan daitezkeenei eta beraien familiei, informazio egokia ematea ezinbestekoa da. Horregatik urtero antolatzen diren *Unibertsitate Orientazio Azokak* gure unibertsitatearen erakusle ezinhobea dira eta, 2016ko datuei erreparatuz, 7.788 pertsoneri eman zitzaizen UPV/EHUko ikastegi eta ikasketei buruzko informazioa hiru campusetan.

Azoken jarduera pertsona gehien erakartzen dituen ekimena bada ere, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntz Politika eta Kultura Sailarekin elkarlanean, batxillergoko ikasleentzako antolatzen *ditugun Jarduera Praktikoaren Programak* urtero 4.000 ikasle baino gehiago erakartzen ditu UPV/EHUko ikastegietara: 2015/2016 ikasturtean 4.344 ikaslek hartu zuten parte. Era berean, ikastegiek antolatzen dituzten *Ate Irekiak Programak* ere batxillergo ikastetxe, orientatzaile, irakasle eta ikasle kopuru handia hurbiltzen dute gurera, 2015/2016 ikasturtean 5.045 pertsona, alegia.

##### 4.1.- IRAKATS ESKAINTZA

Lehenengo agintaldiaren hasieran, UPV/EHUren titulu guztiak ez zeuden Europak eskatzen zuen egitura berrira egokituta eta epea amaitzear zegoen. Horregatik, hori izan zen lehen erroka. Zailtasunak zailtasun, gradu eta graduondoko guztiak egokitu genituen. Gaur egun, 68 gradu eta 110 graduondoko eskaintzen ditugu ezagutzaren arlo guztietan. Gaur, zortzi urte beranduago, argi-itzalak ikusten ditugu prozesu honetan.

Gradu eta graduondokoak martxan ipini eta gero, azterketa kritikoa egin genuen, eta titulazio batzuen harrera ikusirik, eskaintza egokitu beharra egiaztatu genuen. Gradu batzuk kendu eta berri batzuk jarri genituen abian. Horien artean, esanguratsuak dira: ingeniartzen arlokoak; fisioterapiakoak edota hezkuntzako titulazio hiru eledunak. Azpimarratzekoak dira, baita ere, gradu bikoitzen aldeko apustua eta, bereziki, nazioarteko beste unibertsitateekin gradu zein graduondoan ditugun titulazio bikoitzak.

Graduondokoei dagokienez egun abian den Plan Estrategikoa da aipagarri, arlo horretan ditugun ahuleziak bideratzeko oso lagungarri delako. Identifikatutako ahulezi horietako batzuk honako hauek dira: espezializazio gehiegi; ikasle gutxi; online bidezko eskaintza eskasa...



#### **4.2.- EREDU PEDAGOGIKOA**

Campusak, azpiegiturak, irakasleak, irakats eskaintza, dena helburu bakarrarekin burutu dugu, gure ikasleei ahalik eta formaziorik onena eskaintzea.

Europako Unibertsitate Eremura (EUE) egokitzeak aldaketa handia eragin zuen irakaskuntza metodologietan. Hori izango da, beharbada, prozesu honen ondorio positiboetako bat. Ikasleak bere ikaskuntza prozesuaren eragile aktiboa izan behar du. Zentzu horretan, nabarmentzekoa da UPV/EHUk martxan jarri duen irakaskuntza eredu propioa: IKD, Irakaskuntza Kooperatiboa eta Dinamikoa.

Lanbideetan aritzeko beharrezkoa den ezagutzari buruzko prestakuntza trinkoa eskaintzeaz gainera, pertsona ikasiak prestatu nahi ditugu, jarrera kritikoa izan eta gogoeta egiteko gaitasuna izango dutenak; galdera egokiak egiten jakingo duten pertsonak. Gure ikasleengan, ezagutzeko grina eta arazo konplexuenak ulertzeko gogoia piztu nahi dugu. Taldean lana egiten eta ekiten erakusten diegu; berdintasuna eta inklusioa gizartearen oinarritzko balio gisa ulertarazi nahi diegu. Hori guztia egiten dugu gure erroak non diren oso argi edukita eta, aldi berean, nazioartekotzearen aldeko kultura sustatuta.

#### **4.3. - IKASLEEN ENPLEGAGARRITASUNA**

UPV/EHUko egresatuak hezten ditugu, besteak beste, bizitza profesional osoan zehar enplegagarritasuna izan dezaten. Beraz, gure helburua ez da, demanda zehatz bati erantzunez, enplegatuak sortzea.

Ondorioz, UPV/EHUko egresatuen enplegagarritasunak kezkatzen gaitu. Horregatik, gure ikasle ohien ibilbide profesionala aztertzen dugu graduatu eta hiru urtera duten egoera laboralari buruzko inkesta eginez. Enplegagarritasun datuen hobekuntza nabaria da. UPV/EHUko egresatuen aktibitateari dagokionez, 2015. urtean (2012ko promozioa) aktibitate tasa igo egin da, azken zazpi urteetako altuenetakoa izanik, alegia %95,6koa. Noranzko berean, enplegu tasak gora egin du bigarren urtez jarraian.

Okupazio tasa nabarmen hobetu da azken urteetan. 2007. urtean geneuzkan baloreetara hurbildu gara eta, krisi garaiko okupazio tasa txikiena kontuan harturik, 10 puntu baino gehiago erreperatu ditugu. 2012an graduatu ziren ikasleentzat okupazio tasaren balioa %82,9koa izan zen 2015ean. Bide onetik goazen seinaleztat hartzen ditugu datuok.

Dudarik gabe, praktikaldiak areagotzeak eragina izan du enplegagarritasunaren hobetze prozesuan. Zentzu horretan, 2008-2009 ikasturtetik 2015-2016ra bitartean, UPV/EHUen erregistratutako praktikaldi

kopuruak gora egin du etengabe eta erritmo onean, egun 10.000 praktikaldi ditugu. Asmo handiko xedea jarri genuen eta baita lortu ere.

#### 4.4.- ehualumni


2015/16 ikasturtean, ehualumni ekimena plazaratu dugu. Euskal Herriko Unibertsitatearen handitasuna islatzeaz gain, euskal gizartean, politikan, kulturgintzan, ekonomian, euskalgintzan diharduten eta UPV/EHU n hazi eta hezi diren 300.000 pertsonen sarea osatzea du helburu, bereziki egungo ikasleei arlo desberdinetan laguntza emateko.

Horretarako, haien enplegarritasuna hobetzeko, ikasturte honetan abiatuko diren lau programa zehaztu dira. Xedea da *Mentoring* programak esperientzia luzea duten ehualumni kideak eta ibilbide profesionala hastear dutenak lotzea. Bestalde, *Enbaxadore* ekimena dugu, unibertsitatearen irudia eta ehualumni sarea, euren lan ingurunean, sozialean eta kulturean zabaltzen dituzten pertsonak biltzen ditu.

*Trebakuntza eskola* izeneko programak, berriz, lana bilatzeko gaitasun aurreratuak lantzeko programa dira. Eta azkenik, *Cicerone* ekimenaren bidez, unibertsitatea partekatu duten pertsonen lurralde berri batean kokatzen laguntzeko kanpo sarea eraikiko da.

## 5.- IKERKETA

Ezin dugu ulertu unibertsitate bat ikerketarik gabe eta haren emaitzen transferentziarik gabe. Horrez gainera, ikertzaile ona izateak irakasle hobeak egiten gaitu, zalantzarik gabe. UPV/EHUren ikerketa jardueraren eboluzioa nabarmena da. Euskal Herriko ikerketa eragile nagusi gisa errotu da. Bi agintaldi hauetan, nabarmen areagotu da UPV/EHUko produkzio zientifikoa, bai kantitatean bai kalitatean. Hala, gaur egun, 272 ikertalde ditugu jakintza arlo guztietan. Arlo guztietan talde bikainak ditugula esan dezakegu, nahiz eta, jakina, hobetzen jarraitu behar dugun. 2015. urtean, 2.878 argitalpen egin ziren prestigioko nazioarteko argitalpenetan, horien % 56,77 lehen kuartilean (2011. urteko datuekin alderatuz 4 puntu gehiago), 180eko H indizea eta 479.160 aipu lortuta. Aipatzekoa da ere 2008. urtean, argitalpenen kopuruak ozta-ozta gainditzen zuela 1.500eko kopurua. Azken hamar urteetan, 137 enpresa eta 1.061 lanpostu sortu ditugu.




Nazioarteko argitalpenak (web of science WoS) eta horietatik lehenengo kuartilean daudenak (Q1)

Ezagutza horrek guztiak aukera ematen digu gure gizarte eta ekonomia ingurunearekin lankidetzan estuan aritzeko. Hala, 2011/2015 aldian, era guztietako 1.471 enpresa eta erakunderekin egin dugu lana, bai aurrekontu hornidura handiko ikerketa proiektuetan, bai txosten teknikoetan, neurririk egindako ikastaroetan edo aholkularitza lanetan. Azken bost urte hauetan kanpoko eragile sozio-ekonomikoekin elkarlanean lortutako finantziarioa 44,1M€koa izan da. Aspaldian egin diogu uko "unibertsitate-enpresa harremanik ez dago" estereotipoari. Hala eta guztiz ere, hobetzen jarraitu beharraz jabetzen gara.




Bestalde, nabarmendu behar dugu 2015/2016 ikasturtean 574 doktorego tesi defendatu direla; hau da, 2007/2008 ikasturtean defendatutako doktorego tesien kopurua (268) halako bi.



Doktorego tesien bilakaera

Bereziki aipatu behar dugu, halaber, nazioarteko tesietan (167 izan ziren 2015/2016an eta 40 2007/2008an) eta euskarazkoetan (53 2015/2016an eta 18 2007/2008an) izandako gorakada, baita tutorekidetza erregimenean egindako 13 tesiak ere.



Euskaraz egindako tesiak (gorriz) eta horietatik nazioartekoak direnak ere bai (berdez)



ZabalduZ programaren hasiera ere aipatu behar da. Programa horren bidez, gure ekonomia eta gizarte ingurunean sortutako ikerketa premiei erantzuteko planteatutako doktorego tesiak egin nahi dira. Ekimen hori Eusko Jaurlaritzako berrikuntza fondoaren bitartez finantzatu zen, baina aurrekontu murrizketen ondorioz ez du jarraipenik izan. Etorkizunean berreskuratu ahal izatea espero dugu eta horretarako interesa duten enpresa eta gizarte eragileen finantzazioa beharko genuke.

## 6.- EUSKARA

Euskarari dagokionez Euskal Herriko Unibertsitatea euskararen unibertsitatea dela esan beharra dago. UPV/EHU euskara normaltasunez erabiltzea lortzen ez badugu, euskara unibertsitate mailako hizkuntza bezala galduko dugu. UPV/EHU da mundu osoan erantzukizun hori daukan bakarra.

Errektoretza talde honek euskararekiko konpromiso irmoa izan du eta hona hemen horren adierazle batzuk. 2008. urtean hirugarren hizkuntza eskakizuna egiaztatuta zuten RPTko lanpostuetan lanean zeuden langileen portzentajea %17 zen eta aldiz agintaldia bukatzeaz dagoelarik, aldiz, %31koa da.

Graduetan euskaraz eskainitako kredituen igoera ere nabaria izan da. 2012/2013 ikasturtean 16.500 kreditu eskaintzen genituen euskaraz eta, ikasturte honetan 20.000 kreditu baino gehiago eskainiko ditugu, alegia, ikasketa planetako kredituen %90. Euskarazko irakaskuntzarako oinarritzakoa den ikasmaterialgintzan ere ahalegin berezia egin dugu. 2008. urtean euskaraz 43 liburu argitaratu genituen bitartean, 2015ean 89 izan ziren.

Graduondoko eskaintzari dagokionez lanbidezko masterretan euskaraz eskaintzen diren kreditu kopurua hirukoiztu egin dugu.

Dibulgazio zientifikoari dagokionez, Kultura Zientifikoaren Katedrako lantaldeak egindako lan bikaina goraipatu beharrekoa da. Urtero, batz bestea, 25 bideo, 25 elkarrizketa, 15 hitzaldi eta 380 artikulua ekoizten ditu euskaraz.

Azkenik, irakasle elebidunen bilakaerari dagokionez, langile zerrendan jardunaldi osoarekin dauden irakasle elebidunen datuek erakusten dutenez, jadanik Euskara Planak jasotzen duen helburua, hots, 2017an %52a izatea, gainditu dugu. 2006/2007 ikasturtean irakasle elebidunen portzentajea %35,31koa zen eta 2015/2016an %53,48koa.

<b>Ikasturtea</b>	<b>Elebidunak (jardunaldi osoa)</b>	<b>Portzentajea</b>
<b>2006/2007</b>	1.040	%35,31
<b>2012/2013</b>	1.542	%47,72
<b>2013/2014</b>	1.703	%50,34
<b>2014/2015</b>	1.728	%51,74
<b>2015/2016</b>	1.773	%53,48

Honekin batera azpimarratzekoa da 2015/2016 ikasturtean jardunaldi osoan diharduten irakasle elebidunetatik %79,81 doktoreak direla eta helburua %80an dago zehaztuta. 2006/2007 ikasturtean doktore euskaldunak %44 ziren. Beraz, laster Euskara Planak finkatzen duen kopuru hori ere gaindituko dugu.



Autokritika ere egin behar da. Euskara oraindik laneko hizkuntza izateko gaitasunaz haratago erabilera bultzatzeko urrats gehiago eman behar ditugu. Gradu batzuetan oraindik pauso gehiago eman behar dira batez ere osasun arloan eta ingeniari-tza batzuetan.

## 7.- NAZIOARTEKOTZEA

Unibertsitate ikerlaria garen heinean, ezinbestekoa da UPV/EHUK nazioarte mailan duen presentzia sendotzea, talentua erakartzeko eta mundura gure ikasle, irakasle zein administrazio eta zebitzuetako langileak bidaltzeko gai izanik.

Unibertsitatearen akademia zein kudeaketa jarduera orotan nazioartekotzea zeharkako bektore legez sustatu behar dugu, eremu guztietara iritsiz. Ildo horretan, gure herria munduan kokatzerakoan Euskal Herriko Unibertsitatea instituziorik garrantzitsuenetakoa da. Edozein naziok, nazioarte mailan presentzia izan nahi badu, kanpoan ezaguna den eta kanpora zabalik dagoen unibertsitatea behar du. Unibertsitate hori gurea da.

Urtez urte atzerriko ikasle gehiago ditugu gradu zein graduondokoetan eta, gero eta gehiago dira beste herrialde batzuetara joaten diren UPV/EHUKo ikasleak. 2012tik 2015era bitartean %25 handitu da ikasle bisitarien kopurua (1.048) eta %20 kanpora atera den ikasleena (1.500)

UPV/EHUK 50 herrialdetako 150 unibertsitateekin ditu nazioarteko lankidetzak hitzarmenak. Zentzu horretan, nabarmentzekoa da Shangaiko rankingeko lehenbiziko 100 unibertsitateetako 15ekin elkarlan itunak dituela. Atzerrian praktikak egiteko politika handinahia garatu da eta, ondorioz, gaur egun atzerriko enprekin 180 hitzarmen ditu gure unibertsitateak. Mundu osoko unibertsitateekin graduko 16 titulazio bikoitz eta 11 master eskaintzen ditu.

Azkenik, nabarmentzekoa da Latinoamerikako Master eta Doktorego Sarea, zeinek 13 herrialdetako 16 unibertsitateetan zazpi master eskaintzen dituen. Orotara, 337 ikaslek eskuratu dute master titulua eta 119 doktoregokoa.

### 7.1.- ELEANIZTASUNA

Hizkuntza ez ofizialen erabilerari dagokionez, 2007/2008 ikasturtean 351 irakaslek zeukaten eskolak emateko akreditazioa. Aurten, aldiz, 1.093k dute aipatu agiria. Horrek hizkuntza ez ofizialetan ematen den eskaintza areagotzea ekarri du. 2007/2008 ikasturtean 39 ikasgai ematen ziren 16 titulaziotan eta 11 ikastegitan banatuta. 2016/2017 ikasturtean, aldiz, 307 honela banatuta:

- ✓ Ingelesez 301 irakasgai
  - Osasun zientziak: 12
  - Arteak eta giza zientziak: 19
  - Zientziak: 25
  - Gizarte eta lege zientziak: 145
  - Ingeniaritza eta arkitektura: 100



- ✓ Frantsesez 6 irakasgai
  - Gizarte eta lege zientziak: 1
  - Ingeniaritza eta arkitektura: 5

## **7.2.- NAZIOARTEKO RANKINGETAN PRESENTZIA**

Ikerketa, irakaskuntza eta kudeaketa lanaren emaitza gisa, UPV/EHUK 2012. urtean Shangaiko rankinean sartzea lortu zuen, munduko 500 unibertsitate onenekin batera, eta ranking horretan jarraitu du, azken bost urte hauetan. Nabarmendu behar dugu ere, ingeniartzaren arloan, ranking horrek 200 unibertsitate onenen artean kokatu du UPV/EHU lehenengoz, 2016. urtean, eta matematikaren arloan, berriz, 150 onenen artean.

Hor izandako arrakasta handiaz gainera, UPV/EHU Times Higher Education rankingean agertu da, 50 urte baino gutxiago dituzten munduko 150 unibertsitate onenen artean.

## **7.3.- EUSKAMPUS, NAZIOARTEKO BIKAINASUN CAMPUSA**

Tecnalia korporazioarekin eta Donostia International Physics Center-ekin (DIPC) elkarlanean, UPV/EHUK Euskampus, nazioarteko bikaintasun campusa lideratzen du. Proiektu hau agregazio eta elkarlanerako esperientzia bezala sortu zen ezagutzak aurrera egin dezan gizarte ongizatearen maila gero eta hobetoak lortzeko helburuz.

Proiektuak lau espezializazio eremutan garatzen du bere jardueran:

- Prozesu berritzaileak eta material berriak
- Zahartze osasungarria eta bizi kalitatea
- Ekosistema iraunkorak eta ingurumen teknologiak
- Berrikuntza soziala

Nazioarteko adituen batzorde batek proiektu honetaz egin duen azken ebaluazioaren ostean, UPV/EHUK Nazioarteko Bikaintasun Campusaren izendapena lortu du behin-betiko, eta kalifikazioa gorenarekin. Horrela, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren azken ebazpenaren arabera, nazioarteko batzordeak ebaluatutako 30 bat proiektu baino gehiagoren artean, Euskampusen hirugarren proiektu onenaren postua lortu du.

## **7.4.- EUROESKUALDEKO CAMPUSA**

UPV/EHUK, Bordeleko Unibertsitatearekin batera eratutako Euroeskualdeko Campusa formazioan, ikerketan eta ezagutzaren transferentzian lankidetzan jarduteko eremu bezala sortu da. Mugaz gaindiko campus honek Akitania-

Euskadi ezagutzan oinarritutako Euroerregio bezala sendotzea eta nazioarteko bere hedapena sustatzea ditu helburu.

Mugaz gaindiko Campus Euroerregionalak 10.000 ikasle eta irakaskuntza eta ikerketako 12.000 profesional biltzen dituen ezagutza eremua sortu nahi du. Proiektuak euskararen lurraldeko ekonomia, gizarte zein kulturaren garapenean eragin handia izan nahi du.

Campus Euroerregionalak, dagoeneko, eman dituen emaitzen artean honako hauek dira aipagarri: graduondoko 6 titulazio bikoitz, tutorekidetza erregimenean egindako 22 tesi edo fabrikazio aurreratuan edo nanoteknologiaren eremuetan, mugan zeharkako lankidetzako bi ikerketa laborategi.

## 8.- GIZARTE ERANTZUKIZUNA

UPV/EHU gizarte erantzukizunez jokatzeko duen unibertsitatea da. Bi dira alor honetan UPV/EHUren baliorik garrantzitsuenak; berdintasuna eta inklusioa. Goi mailako hezkuntzari dagokionez, Euskal Herriko Unibertsitateak lagun ororentzat ditu ateak zabalik. Goi mailako ikasketak burutzeko aukera berdintasuna bermatzen duen erakunderik garrantzizkoena da, ez bairik gabe. Gurean ikasteko bete behar den baldintza bakarra beharrezko maila akademikoa izatea da. Aukera berdintasuna UPV/EHUren funtsezko printzipioetako bat da. Ildo horretan, zailtasun ekonomikoak izan eta matrikulen ordainketarako arazoak dituzten ikasleei zuzenduriko deialdi bat jarri zen abian 2013. urtean. Deialdi horren laugarren edizioa dago egun indarrean, 2016koa. Orotara, lau deialdietan, 172 ikasle izan dira deialdi horren onuradunak eta, jada, 10 ikasle dira titulazioa lortu dutenak laguntza horri esker. Erakundearen eta ikasleen arteko erantzukizun partekatua emaitzak dira hauek.

Gai honekin jarraituz, gurea unibertsitate inklusiboa dela nabarmendu nahi dut. 2010-2011 ikasturtetik 2015-2016era bitartean, ezgaitasunen bat duen 506 ikasle berri sartu dira. Eta gurean hezteaz gain, laneratze programa berezituak jorratzen ditugu beraientzat. Zentzu honetan, UPV/EHUko II. Inklusio Planaren gauzatze erabatekoa lortu da eta, Estatu mailan, unibertsitate funtzionala eta behar bereziak dituzten ikasleen politiketan erreferentziazko unibertsitate gurea.

UPV/EHUK erantzukizun berezia du berdintasun eskubidearen gauzapenean, arlo horri buruzko gure plangintzetan islatzen den moduan. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna unibertsitate bikaintasuneko beste adierazle bat da, gure irakaskuntza, ikerketa edo kudeaketa lanean. Oraindik bide luzea geratzen zaigu, zalantzarik gabe, baina, goi mailako hezkuntza erakunde publiko gisa, abangoardian jarri behar gara arlo horretan. 2014. urtean II. Berdintasunerako Plana onartu zen eta bertan aurrikusitako 87 ekintzetatik 52 bete dira e 18 inplementazio fasean daude.

## 9.- FINANTZIAZIOA

UPV/EHUren finantziazio markoa Unibertsitate Planean zehazten da. Lau urteko iraupena duen plana izanik, Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak onartzen du.

2011/2014 Unibertsitate Plana, egiaz, plan on bat zen. Hiru alderdi hartzen zituen kontuan: finantziazio arrunta, programa-kontratuak eta inbertsioen urte anitzeko plana, unibertsitatearen irakaskuntza, ikerketa eta transferentzia helburuak modu egokian betetzeko adina. Helburuok hezkuntza-arloko goi-erakundeek 2014. urterako %1,3ko Barne Produktu Gordinaren (BPG) gainean egin beharreko inbertsioaren arabera ezarri ziren, abiapuntutzat 2008ko %0,97 hartuz.

Aldi berean, Planaren arabera, Euskal Unibertsitate Sistema barruko unibertsitateek I+Gn egindako inbertsioa 2009an BPGren gaineko %0,35 izatetik, 2014n %0,49 izatera iritsiko zen.

Helburu horiek lortu ezker, 2011/2014 Unibertsitate Plana amaitzean Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE) Europar Batasuneko batezbestekotik hurbil egongo zitekeen eta urte horietan unibertsitateak 1.429 M€ jasoko zituen.

Zoritxarrez helburu horiek betetzea ezinezkoa izan zitzaion Eusko Jaurlaritzari krisi garaiak gogor jo gintuelako. Planean aurreikusten ziren premisa batzuk betetzea ezinezkoa izan zen (soldatak %5 jaitsi eta gero, izoztuta egon dira; Itzarriko ekarpenik ez da egin; aurreikusitako lanpostu guztiak ez dira sortu...) eta, ondorioz, UPV/EHUK 1.275 M€ jaso zituen .

2015/2018 Unibertsitate Plan berria onartzerakoan ere krisi gaintitu gabe zegoen. Ondorioz, plan horrek ere ezin izan die irakaskuntzaren eta ikerketaren arloetan bikaintasunerantz zuzentzen den unibertsitatearen beharrei erantzun eta bertan aurreikusitako baliabideek gizarte aitzindari batek dituen unibertsitate baten erronkei erantzuteko ez dira nahikoak izan.

Hala eta guztiz ere, UPV/EHUK euskal gizartearen aurrean bere konpromisoa berretsi du eta egin zezakeen proiektu akademikorik onena egiten ahalegin guztiak egin ditu eta, etorkizunean ere egingo ditu. Ez dugu zalantzarik horretarako, orain arte bezala, Eusko Jaurlaritza eta Eusko Legebiltzarraren laguntza izango dugula.

Dena dela, ondoko ondorio hauek nabarmendu behar ditugu:

- Unibertsitate Plana Eusko Jaurlaritzak onartzen duen plana da, baina gure ustez bi aldeko ituna izan beharko litzateke eta momenturen baten aldatu behar bada erakunde bion onarpena beharko luke.
- Hezkuntza eta ikerketa politikek epe ertain luzeko estrategia egonkorrak eskatzen dituzte.
- Kontratu programak, ondo erabiliz gero, oso tresna egokiak dira.
- Kudeaketan malgutasun gehiago beharko genuke.

## 10.- AZKEN HAUSNARKETA

Errotutako unibertsitate bat gara gaur egun. Euskal gizarteak modu positiboan baloratzen gaitu, eta presente gaude euskal herritarren egunerokoan gure iritzi artikuluen bidez, gizartea eta unibertsitatea elkartzeko ehugune bezalako foroen bidez, gure kritiken edo gogoeten bidez, edo telebista nahiz irratian egindako agerraldien bidez.

Alabaina, horrekin ez dugu aski. Hobetzen jarraitu behar dugu; izan ere, handia da atzean geratzeko arriskua, hainbat arrazoi direla eta. Batzuk aurrekontuari lotutakoak, jakina. Beste batzuk, ordea, araudiei lotutakoak, unibertsitatea behar bezain besteko malgutasunez kudeatzea eragozten baitigute. Guk nahi dugun malgutasun hori badute jada munduko beste unibertsitate batzuek. Ezin dugu ahaztu, ordea, batzuetan, irakasleak kontratatzeko eta sustatzeko gure esku dauden prozesuetan gerta daitekeela onenak ez kontratatzea.

Txosten honi amaiera emateko etorkizunari begirako hausnarketa batzuk partekatu nahi ditugu:

- Munduko testuinguru batean, gurea bezalako herri batek kalitatez baino ezin du lehiatu. Industria kalitatea, gizarte kalitatea, kultura kalitatea, hezkuntza kalitatea eta politika kalitatea.
- Gaur egun, Euskal Herriko lehengai bakarrak hezkuntza eta ikerketa dira, eta hala izango dira etorkizunean ere.
- Hezkuntza eta ikerketa dira kalitatea bermatzen duten lehengai bakarrak.
- Horregatik, hezkuntzak eta ikerketak gure gobernuaren eta legebiltzarraren lehentasunetako bat edo lehentasuna izan behar dute.
- Irakasle lanbidea eta unibertsitateko irakasle-ikertzaile lanbidea behar bezala errespetatu, babestu, baloratu, goratu eta ordaindu behar dira.
- UPV/EHUK ahalik eta irakasle-ikertzaile onenak kontratatzea izan behar du helburu. Horretarako iraganeko inertziak gainditu eta beharrezko bitartekoak eta malgutasuna izan behar ditu.
- Ikerkuntza ikerketa egiteko trebatutako pertsonak egiten dute, hau da, doktoreek. Ikertzaileak prestatu, ikertzaileak erakarri eta, batez ere, bertan direnak zaindu behar dira.
- UPV/EHUK bere ekoizpen zientifikoa hobetzen jarraitu behar du eragile guztiekin elkarlana areagotuz. Lankidetzan lehiatuz; horrek behar du helburu izan.

- Ikerketa kalitatea ez da sortzen lege araudien bidez, baina erraz suntsi daiteke dekretu batez. Ikerketa onak epe luzeko erronka bat eskatzen du; arreta, konfiantza eta zaintza behar ditu. Haren emaitzak beti erabiltzen dira.
- Hezkuntzak eta ikerketak finantzaketa esparru egonkor bat behar dute epe ertain eta luzera, legebiltzarreko legealdiaz harago iritsiko dena, noski. Europako erreferentziazko eskualdeen mailetara gerturatzea beharrezkoa da. Egia da hezkuntza eta ikerketa ez daudela bakarrik egindako inbertsioaren menpe, baina, zalantzarik gabe, hori gakoetako bat da. Goi mailako hezkuntzan eta ikerketan egin dugun inbertsio ahalegina berreskuratu egin beharko genuke.
- Unibertsitate araudia berrikustea beharrezkoa da, besteak beste: murrizketak eta burokrazia gutxitu edo ezabatu eta kudeaketa hobetzeko; irakasle-ikertzaileen kudeaketan politika berritzaileak garatzeko; bi aldeen artean adostu eta berritutako finantziario esparru egonkorra ezartzeko, edo gobernantza eredu alternatiboak ezartzeko, mundu mailan arrakastatsuenak direnen antzekoak. Malgutasuna behar dugu.

Azken urteetan unibertsitate honek urrats esanguratsuak eman dituela uste dugu benetan. Emandako datuek horrela erakusten dute. Unibertsitate ona gara, euskal gizartearen zerbitzura dagoena, guztiona. Hobetzen jarraitu behar du, noski, eta bide horretan zuen laguntza behar beharrezkoa dugu. Baina euskal gizarteak emandako baliabideei ahalik eta etekin onena ateratzen ahalegindu gara.